

EZKIL OTSAK

(NERE ERRIKO
KANPAI ZARRARI)

Gure len
eleizaren aldare
nagusia.



Egun sentiarekin batera argi ezkillak gaitu esnatzen,
Bere soñua erritik zear ba doa alaiki zabaitzen,
Txoriarekin bat egiñikan Jainkoa apalki dute agurtzen,
Eta guztiok egun berritzean lanerako gera prestatzen.
Argi-ezkillak, zure deiarekin, otoitzean gera jartzen.

Meza nagusia asi baño len, or dijoaz Joxe ta Martin.
Ezkin jotzalleak dirade, eta astera doaz bere lanarekin,
Kanpantorrean geldirik dagon kanpai aundiarekin.
Berari bizkor jira emanez, adierazten otsarekin,
Kristau gerala ta bear degula ekin gure egintzarekin.

Eguardi ezkillak dituzu orain entzuten amabietan,
Gure aitonak, zeuden lekuan gelditzen ziran bat batetan.
Otoi bero bat egiten zuten Jainko Amaren onrretan.
Eguardiko ezkil otsa da maitagarria benetan,
Gure amari otoitz egiñez elkartzen gera une ortan.

Eleiz jaietan ta errikoetan sendo kanpai iraulketa,
Adierazirik egun alaia o ba dala ibilketa
Jesusen gorputza ogi egiñik irten dala kaleeta,
O gure zaindari Magdalena dijoala bere ermita,
Ezkil ots onek biotzak pozez ipintzen ditu beteta.

Elizakoak ba diradela dezu oraingo ezkil deya

Norentzako ote diraden egiten degu galdera.
Gure kalean gaixo dago bat, ark izango du premiya.
Eleiz mutilla txintxarria joaz, ondoren Jesus maitatiya,
Elizakoen azken igurtziz izan dezala graziya.

Gaixo zegona goizean il da, entzun degu illezkilla,
Bere animatzaz oroiturikan, egin dezagun otoitz ixilla.
Billera laixter entzungo degu, ba dijoaz bere billa,
Eleiz barruan bere illetan otoitzean lagun pillak,
Zeru goieko atsedenean betiko gerta dedilla.

Ezkil zaratak oso laixterka ari dira gau erdian,
Sua dagola adierazten erriko etxe batian,
Auzoko danak entzundakoan, or dira larri kalia,
Une oietan ikusten bai da laguntza auzo partian,
Eta su ori itzaliko da laixter guzien artian.

Eguzkiari agur eginda orra amezkillaren otsa,
Eguna ondo igaro degu, egin Jaunari otoitza.
Ezkil soñuak apalduko du nekez daukazun biotza,
Eguna tamal pasa ba dezu, berak dakarkizu poza,
Eta gozoa izango zaizu gaurko gabea ametsa.

ZEIN DESBERDIÑAK DIRADEN, EZKILLAREN OTSAK
BATZUETAN ZEIN ALAI, BESTEETAN ZEIN GARRATZAK.

(XABIER)

Errenderi'n 1971-VI-7